

Gazte-enpresagintza Euskadin


DATUEN AURRERAPENA

2013



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud





IKERKETAREN HELBURUAK

- ✓ Euskadiko 20 eta 34 urte bitarteko gazteek ekiteko eta norberaren kontura lan egiteko duten prestutasun orokorra ezagutzea.
- ✓ Zenbat gazte ekintzaile dauden jakitea.
- ✓ Gazteek enpresagintzan duten esperientziaren ezaugarriak zehaztea.



Fitxa Teknikoa

Ikerketa-mota

Kuantitatiboa, inkesta telefonikoen bidezkoa

Inkestaturiko unibertsoa

EAEko 20 eta 34 urte bitarteko gazteak

Inkesta-kopurua

1652 (420 Araban, 700 Bizkaian eta 532 Gipuzkoan)

Inkesta-kopuru osoaren lagin-akatsa

$\pm\%2,4$ (konfiantza-maila: %95,5 eta $p=q=0,5$)

Landa-lanaren data

2013ko apirila

Ikerketaren diseinua eta emaitzen azterketa

Gazteen Euskal Behatokia

Landa-lana

Gizaker Encuestas

I. Blokea:





ENPRESAGINTZAREN INGURUABARRAK


- A. Baldintza formalak:
hezkuntza, legeak, finantzak, zergak
- B. Baldintza informalak:
kultura, beldurrak, lehentasunak
- C. Enpresagintzaren mapa

Euskadiko 20 eta 34 urte bitarteko gazteen iritziak

INGURUNEAREN BALDINTZA FORMALEN BALORAZIOA





 Zure ustez, ondoko baldintzak zenbateraino dira oso edo nahiko lagungarriak negozio bati edo enpresa bati ekiteko?




Gazteen iritziz, ingurunearen baldintza formalak -hezkuntzari, finantza-laguntzari, baldintza fiskalei edo bankuen kredituari buruzkoak ez dira lagungarriak enpresagintzan.

ENPRESAGINTZARA BIDERATUTAKO PRESTAKUNTZAREN HEDAKUNTZA



 Eskolan, institutuan, Lanbide Heziketako zentroan edo unibertsitatean hartu al duzu parte enpresa-kudeaketari edo negozio bat martxan jartzeari buruzko ikastaro edo jardueraren batean?




Gazte gehienek ez dute enpresagintzaren arloko prestakuntzarik jaso.

Hamar gaztetik hiruk baino ez dute jaso enpresagintzari buruzko prestakuntza, hezkuntza formalaren baitan.

AHOLKULARITZA ZERBITZUEN EZAGUTZA MAILA




Entzun al duzu ezer enpresak sortzeko laguntzak edo aholkularitza ematen dituzten entitateei buruz?




Gazteen erdiek enpresagintzara bideratutako laguntzei buruz entzun izan dute, baina gutxiago dira zerbitzu zehatzen bat gogoratzen dutenak.

EKINTZAILEEN IRUDI SOZIALA



Zein iritzi duzu ekintzaileei buruz?




▶▶▶ Gazte gehienek ekintzaileez duten jarrera positiboa da.

NORBERAREN KONTURAKO ENPLEGUA ALA BESTEREN KONTURAKO ENPLEGUA NAHIAGO IZATEA



Aukeratzetik bazenu, zer nahiago zenuke: zure kontura lan egitea ala
besteren kontura lan egitea?




20 eta 34 urte bitarteko gazte gehienek nahiago dute besteren kontura lan egin. Hamarretik bik bakarrik nahiago dute norberaren kontura lan egin.

2010eko datuekin alderatuta, 6 puntu jaitsi da norberaren kontura lan egitea nahiago dutenen ehunekoak.

BESTEREN KONTURAKO LANA NAHIAGO IZATEKO ARRAZOIAK



Zergatik nahiago duzu besteren kontura lan egin?




Lasaitasuna eta segurtasuna dira arrazoirik pisutsuenak besteren kontura lan egin nahi dutenen artean.

Bat-bateko erantzunak multzokatuta
Oinarria: besteren kontura lan egitea nahiago duten gazteak (%69,6)

NORBERAREN KONTURAKO LANA NAHIAGO IZATEKO ARRAZOIAK



Zergatik nahiago zenuke zure kontura lan egin?



Independentzia da, oraindik ere, norberaren konturako lana nahiago izateko arrazoi nagusia.


2010etik hona hazkuntzarik handiena izan duen arrazoi enplegu duina izatea da.

2010


2013

Bat-bateko erantzunak multzokatuta
Oinarria: norberaren kontura lan egitea nahiago duten gazteak (%20,2)

EKITEARI IKUSTEN ZAIKION ARRISKUAK




Gaur egun negozio bat martxan jarri beharko bazenu, zein arriskuk emango lizuke beldurrik handiena?




Diru-sarrerak ziurtatuta ez izatea da, arrisku guztietatik, gehien aipatzen dena.

Erantzun hori eta lanaren segurtasun-eza dira 2010etik igoyerarik handiena izan dutenak.

GINORDETZAN 100.000 € JASOZ GERO, NEGOTZIO BATEAN INBERTITZEKO PRESTUTASUNA




100.000 €ko herentzia jasoko bazenu, zer egingo zenuke diruarekin?



Pixka bat igo da espero gabe dirua jasoz gero, negozio batean inbertituko luketen gazteen ehunekoa. Hala ere, ehuneko hori ez da gazteen laurdenera ere iristen.

ENPRESAGINTZAREN HEDAPENA EUSKADIKO GAZTEEN ARTEAN: ENPRESAGINTZAREN MAPA



II. Blokea:



ENPRESAGINTZAN IZANDAKO ESPERIENTZIA


- A. Enpresagintzan izandako esperientzia
- B. Martxan dauden negozioak

Enpresagintzan esperientzia duten 20 eta 34 urte bitarteko gazteen iritziak

ENPRESAGINTZAN IZANDAKO ESPERIENTZIAREN BILAKAERA



Negozioa duten nahiz eduki duten gazteak, edo negozioa abiarazteko zein euren kargu hartzeko urratsak ematen ari direnak.



Oinarria: 20 eta 34 urte bitarteko gazte guztiak

30-34 urte %60,4
25-29 urte %32,8
20-24 urte %6,7

Gizonak %56,3
Emakumeak %43,7

2010

2013


2010eko datuekin alderatuta, behera egin du enpresagintzan esperientzia duten gazteen ehunekoak.

Negozioa duten nahiz eduki duten edo negozioa abiarazteko zein euren kargu hartzeko urratsak ematen ari diren gazteen erdiak baino gehiago 30 eta 34 urte bitartekoak dira, eta gizonak.



ENPRESAGINTZAREN FUNTSEZKO FAKTOREAK

Zure negozioa martxan jartzeko garaian, faktore hauetatik, zeintzuk izan ziren oso edo nahiko garrantzitsuak?




Negozio-ideia izatea funtsezko faktorea da ekiteko garaian. Faktore horren atzetik datoz eredu edo jarraibide ekintzailea izatea, aurreko egoerarekin pozik ez egotea eta beharrezko finantza-baliabideak izatea.

Oinarria: enpresagintzan esperientzia duten gazteak (% 8,1)

ENPRESAGINTZAREN SEKTOREAK



Zer motatakoa da edo izan da zure negozioa?




Enpresagintzan izandako esperientzia gehienak zerbitzuen sektorekoak izan dira. Kabineteak eta bulego profesionalak dira nagusi, bai eta saltoki txikiak eta ostalaritza-zerbitzuak ere.

Bat-bateko erantzunak multzokatuta
Oinarria: enpresagintzan esperientzia duten gazteak (% 8,1)

PREMIAK BULTZATUTA EKITEA



Zergatik erabaki duzu edo zenuen negozioa jartzea: aukera sortu zelako ala premiagatik?




Enpresagintzan izandako esperientzia gehienak aukeran oinarritu baziren ere, bost ekintzaitetik batentzat, premia izan da negozioa abiarazteko arrazoi nagusia.

Oinarria: enpresagintzan esperientzia duten gazteak (% 8,1)



IKASKETEI LOTUTAKO ARLO BATEAN EKITEA

Negozio hori zenbateraino dago edo zegoen lotuta zure ikasketekin edo formazioarekin?




Gazteek abiarazitako enpresagintza-erperientzien erdiak jasotako prestakuntzari lotuta daude.

Oinarria: enpresagintzan esperientzia duten gazteak (% 8,1)

ENPRESAGINTZA BERRITZAILEA



Zuk uste duzu zure negozioan lehiakideek eskaintzen ez duten zerbait berri edo desberdin eskaintzen duzula?




Enpresagintzan esperientzia duten hamar gaztetik lauk uste dute euren negozioak berritzaileak direla, zerbait berria edo desberdina eskaintzen dutelako.

Oinarria: enpresagintzan esperientzia duten gazteak (% 8,1)

HAZI KAPITALA



Zenbat diru behar izan duzu edo kalkulatzeko duzu behar duzula zeure negozioa martxan jartzeko?




Hamar negoziotatik lau hazi-kapital txikiarekin hasten dira ("mikroa"), 10.000 € baino gutxiago inbertituta.

Oinarria: enpresagintzan esperientzia duten gazteak (% 8,1)

FINANTZIAZIO ITURRIAK



Eman al dizute finantziatorik edo laguntza ekonomikorik...



Familia da finantziazio iturri nagusia, eta, jarraian, bankuak eta aurrezki-kutxak.


Enpresagintzan esperientzia duten hamar gaztetik bik ekiteko diru-laguntzak jaso dituzte.

Oinarria: enpresagintzan esperientzia duten gazteak (% 8,1)



ENPRESAGINTZARAKO LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUEN ERABILERA


Jarri al zara harremanetan laguntza- edo aholkularitza-zerbitzuren batekin?



Oinarria: enpresagintzan esperientzia duten gazteak (%8,1)

Gora egin du aholkularitza-zerbitzuen erabilera-mailak: 2013an, enpresagintzan esperientzia dutenen erdiek enpresagintzarako laguntza-zerbitzuren bat erabili zuen, nagusiki, publikoa.

Zein motatakoa?




Oinarria: Laguntza edo aholkularitza zerbitzuak erabili dituzten gazteak



MARTXAN DAUDEN NEGOZIOEN BILAKAERA

Gaur egun, baduzu negozio bat martxan edo zure kontura lan egiten duzu?



Oinarria: 20 eta 34 urte bitarteko gazte guztiak


Zertxobait jaitsi da norberaren kontura lan egiten duten gazteen ehunekoa: 2010ean % 5,5ekoa zen eta 2013an %4koa.

Egoera horretan daudenen profila hau da: gizona, eta 30 eta 34 urte bitartekoa.

SENDOTZE MAILA



Zein da zure negozioaren antzintasuna?



Oinarria: Negozio bat martxan duten gazteak (%4,0)

2010

2013


Martxan dauden negozioen ia erdiek hiru urte baino gehiago dituzte.

Finkatuta dauden negozioen ehunekoa 2010ekoaren halako bi da.

ENPRESAGINTZA BURUASKIA



Zu bizitzeko beste diru ateratzen duzu negoziotik, ala laguntzarik behar izaten duzu hil bukaerara heltzeko?




Gehienak negoziotik bizi dira, kanpoko laguntzarik behar izan gabe. Hala ere, jarduera hori diru-sarrera iturri bakartzat dutenen laurdenek baino gehixeagok laguntza behar izaten dute hil amaierara heltzeko.

Oinarria: nagusiki negoziotik bizi diren gazteak (%3)

NEGOZIOAREN JARRAIPENAREN AURREIKUSPENA



Zure ustez, zure negozioak zabalik jarraituko du hiru urte barru?



Epe ertainera, negozioak jarraipena izango duela uste dute gehien-gehienek.

Oinarria: Negozio bat martxan duten gazteak (%4,0)

EMAITZA NAGUSIAK



- ➔ 20 eta 34 urte bitarteko gazteen %20,2k baino ez dute nahiago norberaren konturako lana. Adierazle horrek 6 puntuko beherakada jasan du 2010etik aurrera.
- ➔ Enpresagintzan esperientzia dutenak %8,1 dira. Lau puntuko beherakada egon da 2010eko datuekiko.
- ➔ Euskadiko gazteen %4,0k negozioa dute martxan.
- ➔ Oinarrizko adierazleetan egon den beherakadak adierazten duenez, krisiak ez du gazte-enpresagintza bultzatzen, areago, gazteak desanimatzen ditu eta enpresagintza oztopatu egiten du.



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud